

Dklubak aukezten du:

LIHER + LAMIAK

DKLUBA
INTXAURRONDO KE
URTARRILA 29
21:00
12 € AURRESALMENTA
15 € EGUNEAN

Liherrak urtarrilaren 29an aurreztuko du etxean *Eta hutsa zen helmuga*. Laugarren diskoa dute sei urteko ibilbidean eta *Nor zaren ere* abestiaren bideo klipa Intxaurren Kultur Etxean bertan grabatu zuten. Sendo hasi den Lamiak hirukote donostiarrak zabalduko du kontzertua.

ETA HUTSA ZEN HELMUGA

Liherrak taldea, zerbait berria sortzen hasiko zela erabaki zuenean, 2020. urteko otsailaren 28an *Hemen herensugeak daude* lana kaleratu eta, bi asteren buruan, munduaren erdia parentesi amaigabe batean sartu izanak eragindako shock emozionala baztertzeko saiatu zen. Baina, ahaleginak ahalegin, sortzen zuten riff oro, atmosfera oro eta kontzeptu oro zen haiek momentu horretan bizitzen ari ziren horren adierazle. Zer da, bada –edo behar luke– , artista bat, ez bada bere garaia artearen bitartez erretratatzeko duen eskribaua?

Ukaezina da bizitako haustura. Baina bakoitzak horren aurrean bide ezberdina egin du, baita ikaspen ezberdinak erdietsi ere, eta Liherrekoak haiena(k) kontatzera datoz. Iritsi baitira, diotenez, helmuga batera, eta helmuga hori hutsa da. Sortzen jarraitzera bultza besterik egiten ez duen hutsa.

Liharren laugarren lana dugu *Eta hutsa zen helmuga*, laugarrena sei urtetan. Kostata bada ere, aurreko lanarekin pandemia garaian 35 kontzertu emateko aukera izan du rock taldeak, baina antzua izatera kondenatua zegoen garai horri buelta emateko, bi urte bete ez dituen zikloari agur esan eta berriz ere jaiotzeko aitzakia hartu du, 11 kanturen bitartez.

Eta hutsa zen helmuga lanaren hezurduran, hasiera- eta bukaera-mugarri gisa, aldez aurretik negatiboak diren baina horietatik ikaspen baikorra atera daitekeen bi kontzeptu erabili dira: hasieran, haustura; amaieran, hutsa. Haustura *Kintsugi* izeneko filosofia japoniarrarekin adierazi da –hala du izena lehen abestiak–, zeinak hautsitako objektuei osorik daudenei baino balio handiagoa ematean datzan. Diskoaren lehen erdian, beraz, taldearen eta norberaren hausturei, beldurrei eta atsekabeei buruz eta horiek konpontzeko kemenari buruz hitz egiten da.

Apurka-apurka, ordea, bigarren erdian dramaren erdian kolektibotasuna aurkitzeak duen eraginaz mintzatzen hasten da, harik eta norberaren eta gizartearen konpontze prozesu horretan huts sendatzaile baten terrenoan sartu arte. Amaierako abestiak, huts horren inguruan “filosofatzeko”, Oteizak bere entseguetan ikertutako huts espazialaz, euskal arimaz eta gure arbasoek harrespilekin zuten harremanaz mintzo dira.

Lana 2021eko uztaila eta abuztuan grabatua izan da Garate Estudioetan, Kaki Arkarazoren eskutik, eta Victor Garcíak masterizatu du Ultramarinos Mastering-en. Lanaren diseinua Fran Rodríguez *La cabeza en las nubes* artistak egin du. Luxuzko kolaboratzaileekin etorri da taldea oraingo honetan, gainera; diskoaren bigarren erdian kolektibotasuna indartzen duten lau ahots paregabe: Noa Eguiguren (Noa & The hell drinkers) *Ain't no Lullaby* abestian, Lidia Insausti (Sky Beats, Arima Soul) *Hasi* abestian, Alain Martinez (Dinero, Qverno) *Mairubaratza* abestian eta Miren Narbaiza (Napoka Iria, Mice) *Orrizuri batek* abestian.

Liher dira Ander Berzosa (bateria), Joshka Natke (baxua, koroak), Iñigo Etxarri (gitarra, koroak) eta Lide Hernando (ahotsa, gitarra).

LAMIAK

[Lamiak](#) 2017an sortutako hard rock power trio donostiarra da. Ander Aramburu (gitarra eta ahotsa), Xabi Arrazola (bajua) eta Xabier de la Fuentek (bateria) osatzen dute taldea.

2019an argitaratu zuten *Itsuen Aroa* izeneko lehen diskoa, Gaztain Estudioetan grabatua. 8 abestiz osatutako lanean, akorde eta riff pisutsu eta astunak ukitu alternatibo eta melodiko nabariek nahasten dituzte.

Laster plazaratuko dute bigarren diskoa otsailean. *Bigarren mundu bat* singlea kaleratu berri dute sareetan, hirugarrena joan den martxoan *Eskerrak* eta maiatzean *Krokodiloaren malkoak* ezagutzera eman ondoren.

Harremanetarako:

(0034) 658 51 13 96

info@ayukenmp.com

<http://ayukenmp.com/>